

Udal Ludoteka TxikiGünearen ERABILERA ARAUAK

Arau Orokorrak

TxikiGünea, neskato eta mutikoei zuzendutako zerbitzu ludiko-hezitzailea da, Güeñes, Zaramillo eta Sodupeko Kultur Etxean burutzen dena. TxikiGünean parte hartu nahi duten umeek 4 eta 10 urte bitarteko adina izan beharko dute, Güeñeseko udalerrian erroldatuta egon behar dira eta, aldez aurretik, udal ludotekarako izena emateko orria aurkeztu behar izango dute.

1. **Plaza mugatuak** dira (20 plaza Güeñesen eta Sodupen eta 10 plaza Zaramillon). Eskatera, kopuru hau baino handiagoa izango balitz zozketa egingo litzateke (eta ez izen emateen ordena jarraituz).
2. **Taldea eratzeko**, eskaintzen diren plazen %50a bete behar da gutxienez.
3. TxikiGüneko erabiltzailea izateak 2019ko urriaren 5etik, 2020ko maiatzaren 30era, larunbatero zerbitzua erabiltzeko aukera luzatuko du. Ludotekaren **ordutegia** larunbatero arratsaldeko 5:00etatik 8:00etara izango da, txangoetan izan ezik.
4. Behin haurra TxikiGünean utzita honen **tutoreak** (aita/ama/tutorea...) edozein momentutan **beraiekin kontaktatzeko moduan egon beharko dira**. TxikiGünearen jolas eremuan, bertako langileak eta umeak baino ezingo dira egon, ekintzen garapena ez oztopatzeko. Umeak TxikiGünean baimendutako pertsonekin baino ezin izango dira sartu eta atera, baimena idatzi baten bitartez ez bada bestelakorik adierazten.
5. TxikiGünera etortzea ez da derrigorrezkoa, baina bertara ez etortzeak **erabiltzaile izaera galtzea** ekar lezake, (hiruhilabeteko hirutan gehienez) betiere itxaro-zerrenda baldin badago.
6. Bi hilabete jarraietan zehar **gutxieneko partehartze batazbestekoa** ez bada izaten, talde hori bertan behera geratuko da kurtsoan zehar. Gutxiengo hori, plazen %30a izango da (7 ume Sodupen eta Güeñesen eta 3 Zaramillon).
7. Umeen tutoreek haien ardurapean dagoen **umearen inguruko informazioa** eskatu ahal izango du, aldez aurretik begiraleekin elkarrizketa adostuz. Ordutegia: Larunbatak 17:00etatik 20:00etara.

Zerbitzuaren erabileraren inguruan

Lagunen jolasa errespetatu behar da, honetan trabarik egin gabe. Erabiltzaileak jolas materialaren eta altzarien erabilera egokiaz arduratuko dira, erabilera desegokia dela eta hauen matxuratzea saihestuz. Langileen irizpideak errespetatuko dira, zerbitzuaren erabilera egokia mantentzeko asmoz.